

IKASTOLAK HERRIARI ekimenaren 3. ekitaldia

SUTAN musikala

Familia agurgarriak:

Mezu honen bitartez, Ikastolak Herriari ekimenaren 3. ekitaldira gonbidatu nahi zaituztegu. Ekitaldi honetarako prestatu dugun ikuskizuna Jaso ikastolaren SUTAN musikala da, eta beraiekin batera, Iruñeko Gazte Orkestraren partaidetza ere izango dugu.

Aurreko bi urteetan, ikastolen jaiak bertan behera geratu edota formatu murriztuan eskaini behar izan genituen. Horrek gure jaiak euskal kulturaren agertoki handi izatea eragotzi zigun, baina urtea hutsik utzi beharrean, ikastolen jaiak, elkarlanean, euskal artisten ikuskizunen lagin bat erakutsiko zuen ekimena antolatu zuten: Ikastolak Herriari.

Aurten gure jaiak berreskuratu ditugun arren, Ikastolak Herriari ekimenari eustea erabaki dute ikastolen jaiak.

Beraz, heldu den azaroaren 25ean Bilboko Campos Eliseos Antzokian taularatuko dugun SUTAN Musikala ikustera gonbidatu nahi zaituztegu. Familia osoarekin une bikaina pasa nahi baduzue, ez galdu musikal euskaldun hau ikusteko aukera! Gainera, Iruñeko Gazte Orkestrak zuzeneko musika jarriko du 40 musikariaren laguntzaz.

Islandian taularatu ostean, musikalak Iruñea, Tutereta eta Donostia bisitatu ditu, eta azken txanpan, Bilbora iritsiko da, bere 10. urteurrena orkestrarekin batera ospatzeko asmoz.

NOIZ: Azaroak 25, ostirala 19:00etan

NON: Bilboko Campos Eliseos Antzokia

SARRERAK SALGAI: [ANTZOKIAREN WEBGUNEAN](#) edo takilan

[Trailerra](#)

[Bideoklipa](#)

SINOPSISIA

1909, New York. Clara Lemich "Triangle" fabrikara sartzen da lanera. Bertan, emakumezkoen lan baldintza kaxkarrak ikusi ostean, beste 20.000 emakumerekin batera "atorgileen greba" deituriko matxinada bultzatzen du. Bere lankideak grebara eramateko, Historiako emakumeengan bilatzen du inspirazioa: Kleopatra (Egipton), Whan Zenyi (Txinan), Marie Coulon (Euskal Herrian). Emakume hauen biografiak irakurrita, indarra eta inspirazioa jasotzen du greba aurrera eramateko.

Istorio honek 2 helburu nagusi ditu:

1. Emakumeen lan-duintasunaren eskubideen aldarrikapena
2. Gizonezkoen eta emakumezkoen arteko desberdintasunak agerian jartzea

IKASTOLAK HERRIARI JAIALDIA ikastolenelkartea

SUTAN MUSKALA

AZAROAK 25, 19:00ETAN CAMPOS ELÍSEOS ANTZOKIAN (BILBO)

BABESLE NAGUSIAK

Gobierno de Navarra, Nafarroako Gobernua, EUSKO JAURLARITZA GOBIERNO VASCO, JASO, EUSKAL EGITIMEN SAILA, upna, Euzko Unibertsitatea, Euzko Legebiltzarra, Euzko Legebiltzarra, Euzko Legebiltzarra

ERAKUNDE HAUEN ARABAI ETA SUBENTZIOAREKIN

FUKARBALDIA, EUSKO JAURLARITZA GOBIERNO VASCO, Bizkaia, KONFEKOOP